

## Solschenizyn eta Mosku-ko urrea

*Zeruko Argia*, 681. zk., 1976-03-28: 9.

Ez dut ulertzen ongi: Espainiako telebixtan euskeraz egin ezin diren mitinak, rusoz, bai. Erdaldunei itzultzaile ohea jarriko genioke gainera. Joan den larunbateko "Directísimo" hori, irain bat izan zen. Ez, ordea, TVE-k Solschenizyn-i eman zion alde nabarmen eta arrigarri honengatik bakarrik; baita Nobel-saritua izan den idazleak non, noiz eta nola esan zituenagatik ere. Eta agertu nahi ditut puntu batzuk:

-1-

Lehendabizi, esan zituenak esan zituen tokian eta garaian esatea erraxkeria bat izan zen. Erraxkeria da, nere ustez. Solschenizyn-ek, eta honen erriak jasan dituen nagusikeriak salatzerakoan, gainontzekoak sufritu ditugunak eta sufritzen ari garenak ezer-uts-putzak direla esatea.

Intelektualak eta idazle bideak lehenik gizon-bideak izan behar dute, eta erraxkeria hau ez zait gizon-bide iruditzen.

-2-

URSS-ko nagusikeriak salatzea bere giza-barruaren eskubide jatorra denez beste, gainontzekoentzako erakusgarri bezala jartzea ere legezko iruditzen zait; baina guk ezagutu eta sufritu duguna, eta berak sufritu eta ezagutu ez duena, gure muturrera utsa balira bezala (eta guk erabili ezin dugun bide batetik) gure kalterako propaganda lez botatzea, ez da giza-bidea.

-3-

Hemen arkitu duen askatasun nabarmen bera arki dezake hemendik Errusi-ra joan eta bost-sei uri nagusienetan pasiatzen erabilia duten batek. Fanatikoak eta kontenta-errazak denetarikoak dira.

Jarri dadila Solschenizyn gure tokian, baina Errusian bertan.

-4-

Egin zuen beste zerbait ere ezin da gizonki egin, nik uste.

Kantzer bat sufritzen ari denak ezin dio tisiko dagoen beste bati honen gaixotasuna eta minak ezer ez direla esan. Gose-egarri asko pasatzen ari den batek ezin dio gose-egarriak dagoenari honen hoiek ezer ez direla esan.

Errusia-ko gaitzak, konforme; ez dugu hemen gaitz txar hori zurituko.

Baina, zegatik joan berria den-edo basa-nagusiak modan jarri zuen "komunismoa edo ni" autamen derrigorrezkoan jarri behar gaitu gu?

Arras kantzerrak jota edo tisiko izan behar ahal dugu derrigorrean?

Osasuna bilatu eta arki nahi dugu guk.

-5-

Gainera, nolatan liteke intelektual-idazle batek, aitatu zituen jan-edan-jantzi-konsumismo hortan bakarrik geratzea? Non dira honek bestetan ain minki erakutsi dizkigun gizon-erri eskubideen eta izpirituaren beste baloreak?

Zera ere esan bait zigun: gure guda, kristau ezpirituak irabazi zuela!

Eliza bera ere jo eta pasa du honek!

-6-

Solschenizyn-ek, nere ustez, fede onez badabil, ekilibrioa galdu du; eta fede txarrez badabil, berriz, gurea, gure fedea, galdu du.

Nik behintzat ezin dut inolatan ere idazle-gizon hau dela 24 orduko begi beraz ikusi.

Batetik, gure 40 urte luze-makur-ikaragarri hoiek inorentzat propina txar bat besterik ez dira gure mutilak jasan dituzten zigor, espetxe, erbesteratze, makurtze, neke-min, ixilpe ilunak eta Solschenizyn-ek ikusi ez dituen beste urdailetakoak diren gose-egarri asko eta asko, gure imutuaren extuenetik ari zaigu esaten: gu primeran bizi gara. Eta, bestetik, Blas Piñar-Girón eta Konpaniak ezin zituzten bere interesak esku obetan jarri; Mosku-n dauden urre gorriak ezin zituzten obeki inbertitu; ara nola errusitarrak, lehen armak exkax-urri, galesti eta zahar-txarrak bialiaz gainera, nola orain gizon hau bialtzen diguten; Franco eta ondorengo kartzeletan egon diren mila-eta-miletatik batek ere ez du errusitar honek TV-bidez itzegiteko izan duen aukerarik izan.

Solschenizyn-ek badaki, ikusten denez, zer sufritu duen eta zer nahi duen; guk ere bai gu non-zeretatik pasa garen eta nora joan nahi dugun.

Ez da orain kanpoko, ez gorri eta ez zuri, guk gauzak nola ikusi behar ditugun esateko inor.

-7-

Idazle den gizon batek, batez ere egia eta zuzentasuna behar ditu zaindu.

Askotan gizon den politiko batek egin ezin duen hau da gizon den idazle bati dagokion lan nagusiena. Eta egia hau, ahal duen osoena behar du esan, eta ez noiz-non komeni zaiona bakarrik. Gizona, idazle denean, beste lanetan ari direnen antzera, egon liteke oker; baina egi-bila ezin da erraxkerietan geratu. Eta egiak agintzen du, batek ikusten duen egiaren alde egiterakoan eta egiteagatik, ez duela gainontzekoen egiarik zapaldu behar; nagusikeria bat salatzen duenean, gainontzekoak sufritzen ari direnak ere saiatzeko eginbidea duela, eta egiten ez badu, ezin dela behintzat bidegabekeriaren alde atera.

Batez ere egin ezin dena hau da: bakoitzari min ematen dion nagusikeria zuritu; eta, gainera, hau dena guk itzegiteko behar eta lor-ezina dugun aho batetik esanaz.

Balore orokorrak non dira! Arriskua eta gizatasuna non!

Mosku-ko urre guziekin ere ez diote Solschenizyn-i gure zanpatzaileei egin dien propaganda nabarmen eta lotsagarria hau ordainduko.